

## ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIAREN KARATULA

**Kontratu mota:** ZERBITZU-KONTRATUA

**Prozedura:** NEGOZIATUA PUBLIZITATEAREKIN

EZAUGARRIEN TAULA	
KONTRATUAREN XEDEA	ESPEDIENTE ZK.
EPELEKO (BERGARA) KONPOSTATZE-PLANTA ETA TRANSFERENTZIAGUNEA GAUZATZEKO PROIEKTUAREN IDAZKETA	2013Q

LEHIAKETAKO AURREKONTUA (eskaintzetan ezin izango dira adierazitako zenbatekoak gainditu)	
ZIFRATAN	LETRATAN
LEIHAKETAKO OINARRIZKO AURREKONTUA 199.999 € (BEZIK GABE)	EHUN ETA LAUROGEITA HEMEREZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO

ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA
Eskaintzak aurkezteko epemuga <b>2014KO URTARRILAREN 20a</b> izango da. Adierazitako egunean, hamahiru orduak (13:00) baino lehen aurkeztuko dira.

GAUZATZEKO EPEA	ZIGORRAK BERANDUTZEAGATIK
<b>3 HILABETE</b> (ikus Agiriaren 4. baldintza)	Agiriaren VII. Kapituluaren aurreikusitako zigorrak

PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULA
Kontratua kontratistaren gain eta kontura gauzatuko da, eta ez da prezioen berrikuspenik egingo

ORDAINTZEKO MODUA
Kontratuaren prezioa ordaintzeko, egokia den ordainagiria aurkeztu eta ontzat eman behar da, eta modu honetan burutuko da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- % 20, kontratua sinatzen denean</li> <li>- % 20, GHK-k lanaren 1. fasea onartzen duenean</li> <li>- % 60, gauzatze proiektua entregatzen denean</li> </ul> <p style="text-align: center;">(ikus Agiriaren 6. baldintza)</p>

### BEHIN BETIKO BERMEA

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU-ren alde eratuko da, ESLEIPENAREN ZENBATEKOAREN % 5 JARRITA (BEZik GABE)  
(Agiriaren 20. baldintza)

### PUBLIZITATEA

GHK-KO KONTRATATZAILEAREN PROFILA ([www.ghkinfo.net](http://www.ghkinfo.net))

### ALDAERAK

EZ DA ALDAERARIK ONARTUKO

### KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

1.- Negozioen bolumen orokorraren gaineko aitortpena eta, egokia bada, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-esparruko negozioen bolumenaren gainekoa, gehienez ere eskura dauden azkeneko hiru (3) ekitaldi barnean hartzen dituena. Egiaztatu beharko da azkeneko hiru (3) urteetako urteko batez besteko negozio-bolumena gutxienez eskaintzaren oinarritzko aurrekontuaren berdina dela. Urteko kontuetan emaitza positiboak islatu beharko dira, aipatutako ekitaldietako biretan gutxienez.

2.- SEIEHUN MILA EUROKO (600.000 €) erantzukizun zibileko aseguruaren ziurtagiria.

Justifikatutako arrazoiren batengatik lehiatzailea, edo taldea osatzen duten lehiatzaileetakoren bat, aipatutako erreferentziak aurkezteko moduan ez badago, kontratazio-organoak baimendu ahal izango du kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egokitzat jotzen duen beste agiri baten bidez egiaztatu dezan.

### KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

1.- Azken bost urteetan burutu diren eta kontratuaren xede direnen antzeko zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, lanen zenbatekoak, noiz eta non egin diren eta lanen onuradun publiko nahiz pribatuak barne; horretarako, obrak ondo egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eta bertan jasota egongo dira, halaber, gauzatzearen zenbatekoa, datak eta lekua.

2.- Talde lehiatzaileak, azken 5 urteetan, % 50 baino gehiagotan etxeko hondakinez osatutako biohondakinak konpostatzeko 3 plantaren proiektuak idatziak izan beharko ditu, eta planta horiek urteko 15.000 tona hondakin tratatzeko bolumena izan behar dute. Zerrendaren barruan sartuko dira zenbatekoa, datak eta plantaren hartzaile publiko/pribatua. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira; hartzailea erosle pribatua denean, erosleak berak emandako ziurtagiri

baten bidez, eta, ziurtagiririk ez badago, enpresaburuaren aitoren baten bidez.

3.- Talde lehiatzailea (enpresa, ABEE eta kolaboratzaileak kontuan hartuta) profesional hauek gutxienez osatu beharko dute:

- Goi-mailako ingeniaria, Agiriko proposamenaren antzeko proiektuen idazketa koordinatzeko gaitasuna eta gutxienez 15 urteko esperientzia izan behar dituena.

- Teknikaria, industria-segurtasuna bete behar duten instalazioen proiektuak idazteko gaitasuna eta gutxienez 8 urteko esperientzia dituena.

- Arkitektoa, gutxienez 8 urteko esperientzia duena.

- Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria, hiritartzeko proiektuak zein bide, zimendu eta egituren proiektuak idazteko gaitasuna eta gutxienez 8 urteko esperientzia dituena.

- Geologia eta Geotekniako teknikaria, gutxienez 8 urteko esperientzia duena.

- Ezaugarri hauek dituzten konpostatzeko planten diseinuan eta prozesuetan aditua: ECNren edo erakunde baliokidearen ziurtagiria, eta A motako konpostaren edo baliokidearen ekoizpena, aireztapen-sistema duten tunel itxietan konpostatzeko prozesuen bidez. Esperientzia urteko 15 KT-ko gutxienerako edukiera duen mota horretako industri instalazio batean gutxienez.

Aipatutako profesionalen titulu akademiko eta profesionalak titulu ofizialen kopia legeztatuen bidez egiaztatu beharko dira.

Konpostatzeko planten diseinuan eta prozesuetan aditua dena inbertsioa egin zuen erakundeak edo enpresak emandako ziurtagirien bidez akreditatu beharko da.

**ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK**

## 1. IRIZPIDEA: PROPOSAMEN TEKNIKOA: 50 PUNTU

1. Eskatutako konposta egokia den ontze-maila duela lortzeko prozesuaren diseinua eta irtenbidearen erraztasuna. 0 puntutik 30era arte haztatuko da.

2. Konpostatzeko plantan lan egiteko beharrezkoak diren ustiapen-langileak. 0 puntutik 5era arte haztatuko da.

3. Planta ustiatzeko kostuen taula, amortizazioak barne, eta horien eragina tratatutako biondakin eta ekoiztutako konpost tona bakoitzeko. Amortizazio-aldia 15 urtekoa izango da. 0 puntutik 10era arte haztatuko da.

4. Aurreikusitako makina finko eta mugigarrien definizio-maila eta egokitasuna. 0 puntutik 5era arte haztatuko da.

Proposamen teknikoaren balorazioari dagokionez, **30 puntu gutxienez lortu beharko dira, teknikoki egokitzat jo ahal izateko**. Gutxienerako puntu horietara iristen ez diren proposamenak lehiaketatik baztertuko dira, eskaintza ekonomikoa baloratu gabe.

## 2. IRIZPIDEA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA: 50 PUNTU

Onartutako proposamenetako eskaintza ekonomikoen puntuak jarraibide hauen arabera kalkulatu dira:

- Lehiaketan % 0 eta % 10 bitarteko beherapenak egiten badira, emandako puntuak adierazpen honen arabera kalkulatu dira:  $P = (B) \cdot 350$
- Lehiaketan % 11 eta % 20 bitarteko beherapenak egiten badira, emandako puntuak adierazpen honen arabera kalkulatu dira:  $P = 35 + (B-0,1) \cdot 100$
- Lehiaketan % 21 eta % 30 bitarteko beherapenak egiten badira, emandako puntuak adierazpen honen arabera kalkulatu dira:  $P = 45 + (B-0,2) \cdot 50$

Eskaintzetan, "prezioa" elementua alderatzeko, kontuan hartuko da, bakar-bakarrik, bakoitzaren prezio garbia (BEZik gabe).

Beharpena (B) eskaintzaren oinarritzko aurrekontuaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko kendura izango da, zati eskaintzaren oinarritzko aurrekontua eginda.

**P** izango da eskaintzaileari dagokion puntuazioa, formula aplikatu eta gero.

Ez da onartuko EHUN ETA HOGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMEREZI EURO (139.999 euro) gehi dagokien BEZa baino proposamen ekonomiko txikiagorik.

## ASEGURUAK

### 16. KLAUSULAN AURREIKUSITAKOAK

**KONTRATAZIO-MAHAIA**

(IKUS AGIRIAREN 18. BALDINTZA)